

① SORGINAK 4

OROK.—Fu! zikin!...

KATTALINEK.—Holakorik aski badelakotz gaur-gehiago¹, hezi behar ditugu ororen artean, bainan, finki eta behin bethikotz... (*Athe ondora badoha, eta erhi bat ezpainen gainean, heldu da berehala gibelerat, erranez.*) Huna gure liztor parea! Berma gaiten hor!

Sartzen dire orduan Maria eta Xaneta. Makila bedera dakar-kate, eskuak haren gainean kurutzaturik egonen baitire, fitsik egin gabe!

III

AINTZINEKO GUZIAK ETA MARIA ETA XANETA

MARIAK.—Jainkoak däzuela gau on, haur ederrak!

XOBADINAK.—Bai zueri ere! (*Ahabetik.*)

KATTALINEK.—Atso tzarrak! Pegarra hautsiko ahal duzue. Loizbait! hortzak ere, balinba!...

XANETAK.—Jartzen gira, ori, gogo onez. Unhatuxeaek ere ginien, bertzalde, oren hantan xutik, Xurittoineko meta lastoari kontra egonik.

LUIXAK.—Xurittoinekoen aldi da beraz, gaur?

MARIAK.—Bai! Bihar zure aldi, Luixa; gaur Xurittoinekoen...

XANETAK.—Ez baitugu segur dolurik, pazote hantxet egonik, nahiz haize strikuna zen xoko hartan...

KATTALINEK.—(*Ahabetik:*) Mihi-sudurrak hormatu balauzkitzue segurik!...

MARIAK.—Zerbait erran duzu, Kattalin?

KATTALINEK.—Ez, ez fitsik... Gau ederra dela gau-iñarentzat.

MARIAK.—Beraz han ginaudelarik...

KATTALINEK.—Barrandan?

MARIAK.—Batre, gaixoa! Iragaiten bakarrik... Gorra izan marko ginuen, Xurittoinetik heldu zen kalapitaren ez aditzeko.

LUIXAK.—Eta zuek ez gorra, deabruari esker!

JOANNAK.—Ez gorra, ez!... Muttuak bakarrik. (*Orok hirri.*)

MARIAK.—Zer duzue gaur, haur ederrak?... Beraz, hantxet entzun ez dugunik ez da: “Hordi tzar! Mandraina? Tri-poi!...” eta nik othe dakit zer holakorik oraino!

KATIXAK.—Eta hoien guzien aditza *urrik* zuentzat, Bordaxuriko su-ondoan berotzea bezala! Zer loria! (*Orok hirri.*)

JOSEPAK.—Pagatu ere behar izan balute, hantxet egonen ziren gau guzia, gaixo Katixa!...

XANETAK.—Aditzailerik nahi ez duenak, ez du gora behar mintzatu...

BENITAK.—Eta aditzaileak ez du behar *aditua errepikatu*, bi sosen girixtinotasunik balinbadu segurik...

XANETAK.—Gure aphezen erranak errepikatzen ditutzu landa aski maiz...

XOBADINAK.—Hots, aphezen aldi orai?... Begozi aphezak deskantsu! Ez dire guk aho-mihietan erabili beharretarik.

② ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Maria eta Xanetaren sartza Bordaxuriaren.
2. Nola agertzen dira mahastzale betze bezala?
3. Sorginen adimendua nolakoa da?

③ ADITZ IKASKUNTZA.

31. ondorat badoa 32 h. balauzkitzue
33. han ginaudelarik 34 gau balute

31. JOAN = aller. Indicatif

Présent

(Ni) moa (je vais) mendoan (j'allais)

(Hi) hoa } mendoan

(Zu) zoatz } zioatzin

(Hura) doa } zoran

(gu) goatz } ginoatzin

(Zuek) zoazte } zioazten

(Heik) doatz } zootzin

32. UKAN. Conj. à double cpl. - Eventuel (1F)

1. OS - C.I.P. SUPPOSITIF

2. DP - C.I.P.

Zueri (à vous)

1. Nik banauzue = si je vous l'avais
- Harek balauzue = s'il vous l'avait
- Guk baginauzue = si nous vous l'avions
- Heiek balauzuetz = si les vous l'avaient

2. Nik banauzkezue = si je vous les avais
- Harek balauz kezue = s'il vous les avait
- Guk baginauz kezue = si nous vous les avions
- Heiek balauz kezuetz = si les vous les avaient

33. EGON. rester. Indicatif Imparfait

- | | |
|----------------|-----------------|
| Ni nindagon | = je restais |
| Hi hindagon | = tu restais |
| Zu zinauden | = vous restiez |
| Hura zagon | = il restait |
| Gue ginauden | = nous restions |
| Zuek zinaudetz | = vous restiez |
| Heik zauden | = ils restaient |